

Aurrera goaz

Euskaldunon Egunkaria, 1991-10-21.

Bada hilabete batzu, ametsetan bezala, hasi ginela "Egunkaria sortzeko" lanean fedea genuen batzuk.

Eta Jaurlaritzari laguntza eskatzen hasi ginela, bai baitakigu laguntza ofizialik gabe oso zailak direla honelako lanak, batez ere EGUNKARI EUSKALDUN baten sortzeak emango dituenak. Eta, egia esan, banuen neronek esperantza. Oraindik ez digute, ordea, hitzegiteko biderik ere jarri.

Ez digute erantzun bat ere eman.

Gehien bat gure herriak, kanpaina honetan lanean jarri zen herriaren zati handi batek, ez du erantzun bat entzun; eta hau, geure herriko Jaurlaritzak egiteko ez da inorentzat ikaskizun.

Halere, herriak, herriz herri!, jarraitu du lanean; eta inori ezer sobratzen ez bazaio ere, biltzen ari da beharrezkoen iruditzen zaion dirua.

Harritzekoa da herri honek Egunkari euskaldun bati eskaini nahi izan dion laguntza.

Eta, honi esker, hau da gaurko gure MEZUA: AURRERA GOAZ!

Ez dugu oraindik Jaurlaritzak zor digun erantzun bat eta LAGUNTZA baten itxaropenik galdu.

Ezin pentsatzekoa da Herriak, eta AZKEN FINEAN EUSKARAK, HERRI HONEN EUSKARAK, eskatzen duenari laguntza ofizial bat, itxaropen hitz bat, ukatzen jarraituko duenik. Oraindik badago denbora, oraindik gutxienez jarri dezakete bere izenean norbait gure lanaren lekuko eta begi izan dadin, edo bi edo hiru, nahi dituztenak, gauzak argi gero daitezen.

Behar du gure herriak bere Instituzio nagusiaren presentzia eta laguntza, lehen aldiz Egunkari Euskaldun komertzial bat sortzera doan unean; eta gehiago; ez badio herriaren eskobideari laguntza normal bat ematen, herriak gogoan izango du betiko.

Beraz, aurrera goaz herriaren laguntzarekin, laster dugu Euskaldunon Egunkaria kalean.